

Jose Goikoetxea
Gatika, Bizkaia (1881)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Apaiza zen eta 32 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: bizkaiera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.220 eta 2.221

Zintak

GAT-006

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-07-19
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Errekako arrantza kordelekin

- **Erref:** GAT-006/001
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:04

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

<p>Herriko errekan lolina, arrankari eta aingira asko daude. Egunez arrak karakolak eta bareak batzen zituzten eta iluntzean erreka joaten ziren. Kordel batean amua eta arra jartzen zituzten. 20-30 kordel inguru botatzen zituzten eta gauean etxera bueltatzen zituzten. Hurrengo egunean bueltatzen ziren kordelek aingiraren bat-edo harrapatu zuten ikusteko. Behin bi libra eta erdiko arrankari bat harrapatu zuten eta merienda egin zuten.</p>

Transkripzioa

Emen erri onetan deukogu erreka eder bat, senetan dagosan arrankari, angille eta loiñe asko. Gure bearra ixeten san egunes, arrak, karakolak eta bareak topetea eta orrek gausa gustiok sartuten gendusen piper lata utzetan. Illundean batuten ginen iru edo lau lagun eta joaten ginen kordelak erreka botaten, baia bear asko deukea onek kordelok botatea; lelengo imini bear dire antzulueta arrak, kordelan puntetan, imintxen gendun arri bet kordela uren ganean lotu sereitxen. Ogei edo ogetamar kordel botaten gendusen eta etorten ginan etzera. Gau atan amesetan bere eitxen nendun urrengo egunean ser koiuko ete gendun. Gaubean bakotxa geure etzera joaten giñenean alkarreri esaten geuntzen lelengo ixartuten sanak geittuteko besteari. Elduten siren goixeko irurek edo laurek eta joaten giñen kordelak ataraten. Elduten giñen erreka ta ikututen geuntzen kordelari iya tirekadaren bat emoten badeu angilleren batek. Gure posak lelengo kordelean koyuten bagendusen iru edo lau angille. Bein koiu gendun libre bi txerdiko [arrankari bet eta agas ein gendun berinye bat].

2. Lagun guztien dirua batu

- **Erref:** GAT-006/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:02:04. **Bukatu:** 00:02:54

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Gaztetan ez zuten dirurik; hala ere, lagun guztien diruak batzen zituzten behar zutena erosteko: ardoa, olio...</p>

Transkripzioa

Edade atan gasteak giñen eta diru gitxi eukitxen gendun. Alkarreri esaten geutzen:
- Pantxiko, senbet diru dekosu?
- Nik, iru txiki.

- Suk, Jeronimo?

- Nik, erreal bat.

Eta alan gustion artean batuten gendun ardaa, koipea, orioa eta beste gausa gustiek pagetako beste. Joaten giñen jaten eta se aurpegi alegrea iminitxen gendun ikusten genduenean arrankaria ederto iminitxe.

Moskorrik esin artu gendun, se diru gitxi geunken ta...

3. Lukiaren eta txalupa-zainaren ipuina

• **Erref:** GAT-006/004

• **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:02:59. **Bukatu:** 00:04:04

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Txakurrengatik ihesi doan lukiaren (azeria) eta txalupa-zainaren ipuina. Erreka hegala batera heldu eta erreka zehartzeko zegoen txalupa-zainari zera esan zion: "Beste aldera pasatzen banauzu, esango dizkizut hiru egi."</p>

Transkripzioa

Txakur batzuri iñes edo eskapan doala beiñ luki bet basorik baso ta solorik solo esin geiaoaan kaderak altzetan situsela, eldu san ibei ertz edo eskiñe batera. An egoan gixon bat botetxu bet uretan eukela eta lukiek esan eutzen "beste aldera pasaten banosu, esango deusdes iru egi". Konforma san gixona eta lukiek esan eutzesan iru egi onek: "Lenengoa: estao garie lango bedarrik. Bigarrena: Estao egune lango argirik. Irugarrena. Ni bario pasajeru obarik pasaten espadosu fraka-sarrak estokus faltako". Entzunik boteruek iru egi onek, ikeratute lotu sen lukien jakitxuriegas.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com